

Koiuntura di-da batean

2018ko martxoa

Aurkibidea

1. Hazkundera
 2. Lan merkatua
 3. Inflazioa
 4. Kanpo merkataritza
 5. Ingurunea
 6. Aurreikuspen berriak
- Eranskina

1. Kontsumoak eta inbertsioak bultzada handia eman diote ekonomiari.

Bi agregatu horiek urte arteko gehikuntza tasa handiak jaso dituzte.

2. Enplegu garbiaren sorrerak %2,0aren inguruan jarraitzen du.

Zerbitzuek tasa altuena lortu dute, baina industriak eta eraikuntzak ere ekarpena egin dute.

3. Argindarraren merkatzeak %0,5era murriztu du urtarrileko inflazioa.

Otsailerako aurrerapenak iradokitzen du hileko horretan gora egingo duela.

4. EAEk atzerrira esportatutakoak beste maximo bat lortu du.

Hala energiako esportazioek nola gainontzekoek emaitza onak eskuratu zituzten.

5. Euroguneak azken hamarkadako urterik onena izan du.

Inbertsioa eta esportazioak ezinbestekoak izan dira emaitza horretan.

6. Hazkunde sendoa eta iraunkorra aurreikusten da.

Europako Batzordeak gorantz zuzendu ditu udazkeneko txostenean aurkeztu zituen aurreikuspenak.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SALA
Ekonomin eta Finantzia Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Financiación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

Kontsumoak eta inbertsioak bultzada handia eman diote ekonomiari

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



2017ko laugarren hiruhilekoko kontu ekonomikoen banaketak, eskariaren ikuspegitik, adierazten du EAEko BPGaren bi agregatu nagusiek aurreko epealdiko tonu hedakorrari eutsi ziotela eta bi kasuetan hamarren bakar bat moteldu zela urte arteko aldakuntza tasa. Lehen kasuan, hazkundea %2,8ra iritsi zen eta bigarrenean, berriz, %3,8ra. Bilakaera horien ondorioz, barne eskaria %3,1 handitu zen, aurreko emaitza berdinduz. Beraz, aurreko hazkunde ereduari segida eman zaio, non EAEko ekonomiaren bultzada ia guztia barne merkaturtik baitator, kanpo saldoa posizio neutroan geratzen den bitartean. Zehazkiago adierazita, laugarren hiruhilekokoan bai esportazioak bai inportazioak %4,8 areagotu ziren urte arteko tasan. Lehenengoek BPGaren gehikuntzari ekarri ziotena bigarrenek kendu zioten.


Gastua azken kontsumoan

Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital eraketa gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Industriaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Eraikuntzaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren bultzada berritua hauteman da, %3,7ko hazkunde tasa lortu zuelako, aurreko epealdietako balioak nabarmen gaindituz. Orobat, eraikuntzak bere erritmo bizia finkatu zuen eta %3,0aren inguruan jarraitu zuen. Hala eta guztiz ere, zerbitzuek moteltzeko joera leuna eskaini zuten, bereziki merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen blokeak. Adar horietan, iazko lehen hiru hiruhilekoetan, batez beste, jaso zen %3,8tik laugarren hiruhilekoko %3,1era igaro da. Aitzitik, jarduera publikoak biltzen dituen taldeak goranzko joera erakusten du 2016ko erdialdetik.


Zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak



Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren b.e.
Urte arteko aldakuntza tasa




Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jardueren b.e.
Urte arteko aldakuntza tasa



LAN MERKATUA


Enplegu garbiaren sorrerak %2,0aren inguruan jarraitzen du

Enpleguaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa




Eustaten kontu ekonomikoek zenbatetsi dutenez, 2017ko laugarren hiruhilekoan enpleguaren urte arteko gehikuntza tasa, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %2,0 izan zen, aurreko hiruhilekoetan jasotako emaitzetatik oso hurbil dagoen zenbakia baita. Tasa horrek esan nahi du lanpostuen kopurura 18.500 enplegutuan hazi dela aurreko urteko epealdi berean zegoen kopuruaren aldean, guztira 940.000 lanpostu baino gehiago direlarik orain. Gaur egunekoaren antzeko enplegu kopuru bat aurkitzeko 2010. urtera joan behar da atzera. Enpleguaren ibilbide on horretan, eraikuntzan hautematen den sendotasuna nabarmendu behar da, %1,6ko gehikuntza lortu baitzuen, hala laugarren hiruhilekoan nola urteko batez bestekoan, aurreko urteko kopuruari 1.000 lanpostu inguru ghituz.

Enplegua lehen arloan
Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegua eraikuntzan
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Enplegua industrian

Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren enplegua moteltzeko joera arina erakusten ari da azken hiruhilekoetan, 2016ko amaieran jaso zuen %2,0tik 2017ko laugarreneko %1,6ra igarota, berraren balio erantsiarenaren kontrako norabide batean. Horrek adierazten du industria produktibitatea irabazten ari dela eta ohiko balioetara, %2,0aren ingurukoetara, itzultzen ari dela. Hala ere, sektoreak 3.000 enplegu baino gehiago gehitu dizkio aurreko urtean zeukan kopuruari.


Zerbitzuak dira oraindik lanpostu garbi gehien sortzen dituen sektorea. Zehazkiago adierazita, %2,2 hazi zen urte arteko tasan, bai laugarren hiruhilekoan bai 2017. urteko batez bestekoa. Tasa horrek esan nahi du lanaldi osoko 14.400 lanpostu baliokide inguru sortu direla 2016ko amaieratik. Aitzitik, enplegu sorrera bizi horrekin batera produktibitate irabazi txikia etorri zen, puntu erdi baten ingurukoa.

Enplegua zerbitzuetan

Urte arteko aldakuntza tasa

**Afiliazioa Gizarte Segurantzari**

Urte arteko aldakuntza tasa




2018ko lehen hilekoetarako dagoeneko eza gutzen den informazioak pentsarazten du enplegu garbiaren sorrerak aurreko urteetako erritmoaren antzeko bati jarraipena eman diola. Izan ere, Gizarte Segurantzako urtarileko eta otsaileko afiliazioa %2,2 hazi zen, 2017ko hileko horien aldean 20.000 afiliatu inguru gehiago zeudelarik. Administrazioaren erregistro horren arabera, zerbitzuak %2,3 hazi ziren hileko horietan eta industria %1,8, bietan lortutako tasak laugarren hiruhilekoetako datuetatik oso hurbil. Halaber, erakuntzaren afiliazioa %2,6ra areagotu zen.

INFLAZIOA

Argindarraren merkatzeak %0,5era murriztu du urtarrileko inflazioa

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa




Urte hasieran, EAEko prezioak 2016ko irailetik inoiz izan duten mailarik apalenean kokatu dira, %0,5era murriztu zirelako, hots, abenduan markatu zuten igoera baino sei hamarren beherago. Inflazioaren behe-rantzko mugimendu horretan, erabakigarria izan zen argindarraren prezioaren jaitsiera. Merkatze hori eguraldiaren hobekuntzak ekarri zuen.

KPIaren banaketa Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko urtarrila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	0,5	0,5
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	0,6	0,5
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	0,5	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	-0,4	-0,1
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,2	0,5
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	-0,2	0,0
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	2,4	0,2
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	-2,1	-0,2


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Hala ere, argindarraren merkatze horren eragina zuzendutakoan, pentsatzekoa da inflazioak gora egingo duela berriro. Horixe iradokitzen du otsaileko KPIaren adierazle aurreratuak, Estatu osorako otsailean bost hamarren igo delako, %1,1era arte.

Prezioen etorkizuneko bilakaera aldatu dezakeen beste faktore bat energiaren balizko merkatzea da. Azken bi urtekoan, AEBek petrolioaren ekoizpena handitu dute eta berriki eguneko 10,25 milioi upeletara iritsi da. Nazioarteko Energi Agentziaren arabera, 2018an inoizko mailarik gorena markatu dezake eta Saudi Arabiaren ekoizpena gaintitu. Eskaintza gehigarri horrek ekoizpena murrizteko LPEEren aha-lerinak indargabetu ditzake, petrolioaren prezioaren azken gorakadak bertan behera geraraziz.

KPIaren talde nagusiak Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Euro gunea
INDIZE OROKORRA	0,5	0,6	1,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,1	1,3	1,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,3	1,3	2,9
Jantziak eta oinetakoak	0,4	0,5	0,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-2,3	-2,0	1,5
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,7	-0,3	0,3
Medikuntza	0,4	0,3	1,0
Garraioa	1,9	1,8	1,7
Komunikazioak	0,9	0,9	-1,0
Aisia eta kultura	-0,5	-0,5	0,9
Hezkuntza	1,4	0,7	-2,0
Jatetxeak eta hotelak	1,4	2,0	2,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,1	0,4	1,2


Iturria: INE.

KANPO MERKATARITZA

EAEk atzerrira esportatutakoak beste maximo bat lortu du

Atzerriarekiko esportazio guztien bilakaera


Milioi euro



Eustatek argitaratu berri ditu 2017ko laugarren hiruhilekoan atzerriarekin eginiko ondasunen merkataritzaren datuak. Horiei esker, 2017. urte osoan egin ziren salerosketa guztien lehen zenbatespena lortu da. Estatistika horren arabera, EAEko ekonomiak 2017an 23.857 milioi euro inguru balio zuten produktuak esportatu zituen, gaur arte inoiz jaso den kopururik gorena baita. Halaber, EAEko inbertsioaren eta kontsumoaren bultzadak inportazioak areagotu zituen, 18.653 milioi eurotara iritsita, 2015ean hasitako beheranzko joera irauliz. Bi mugimendu horien ondorioz, kanpo saldoak 5.204 milioi euroko superabita markatu zuen. Balio hori garrantzitsua da, baina 2016an lortutakoa baino 908 milioi euro txikiagoa.


Inportazio guztiak

Milioi euro.



Merkataritza saldoa guztira


Milioi euro.




Iturria: Eustat. 2016 eta 2017ko datuak behin-behinekoak dira.

Esportazioen gehikuntzaren zati handi bat energia produktuen salmentak azaltzen du, gorakada bizia (%32,2) izan zuelako, bi urtez jarraian beherakadak bildu eta gero. Hala ere, EAEn mendekotasun energetikoa oraindik oso garrantzitsua da eta energiaren inportazioak produktu horien esportazioak halako bi dira (5.020 milioi euro inportatu zen, 2016an baino %54,5 gehiago). Aurrekoaren ondorioz, merkataritza defizita jaso zen berriro, kasu horretan 2.814 milioi eurokoa, hots, 2016koa baino 1.232 milioi euro handiagoa.


Energiako esportazioak
Milioi euro



Energiaz bestelako esportazioak
Milioi euro



Energiaz bestelako esportazioen banaketa
2017. Ehunekoak




Energiaz bestelako esportazioen bilakaera ere positiboa izan zen eta errekorra markatu zuen berriro. Hain zuzen ere, energiakoak ez diren ondasunen salmentak %8,7 hazi ziren 2017an, 2011tik inoiz jaso duten gehikuntzarik gorena baita, eta 21.650 milioi euroko langa gainditu zuten. Europako merkatua izan zen berriro EAEn esportazio ez-energetikoen helburu behinena. Alemaniako, Frantziako eta, neurri txikiagoan, Erresuma Batuko eskari sendoek bide eman zioten eremu horri energiaren bestelako esportazio guztien %57,9 bereganatzeko eta hazkunde tasa %30,4ra eramateko. Metal arrunten eta beren manufakturen, eta ekipamendurako ondasunen salmentak, batez ere garraio materialarenak, azaltzen du emaitza. Aipamen berezia merezi du AEBetara bideratutako esportazio ez-energetikoen bilakaera. Izan ere, bertako merkatu kuota Europako edozein bazkiderena baino txikiagoa da oraindik, baina hazten ari da. Hain zuzen ere, 2010etik EAEn eragileek bi puntu baino gehiago handitu dute merkatu kuota herrialde horretan, nagusiki ibilgailu automobilaren salmentari esker.

Iturria: Eustat. 2016 eta 2017ko datuak behin-behinekoak dira.

BPG-AREN HAZKUNDEA


Eurogunea azken hamarkadako urterik onena izan du

Eurogunea. BPGaren bilakaera
Urte arteko tasa




Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea %2,7 hazi zela iazko azken hiruhilekoan. Beraz, urte osoko balantzea %2,5ean gelditu da, krisia lehertu zenetik BPGak izan duen gorakadarik handiena baita. Brexitaren negoziatzotik eratorritako zurrunbiloek, azken urteko hauteskunde egutegi zalapartatsuak (Holandan, Frantzia eta Alemanian egin dira hauteskundeak) eta Donald Trumpen politika ekonomikotik eratorritako arriskuek ez dute Eurogunea gelditu eta AEBak zein Japonia baino gehiago hazi da. Eremuko bi ekonomia handienek, hots, Alemaniak eta Frantziak, gorakada hori finkatu zuten, hiruhilekoz hiruhileko sendotu den goranzko joera garbi bati esker. BI herrialdeetan, inbertsioaren bizitasunak eta esportazioen bultzadak ekonomia jardura gorarazi dute. Aitzitik, kontsumoa, hala pribatua nola publikoa, ez da gai izan gora egiteko.


Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Portugaleko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Italiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Urte hasiera sendo baten ondoren, Portugalek indarra galdu zuen bigarren seihilekoan, baina horrek ez du eragotzi 2017ko balantzea (%2,7) mende honetako datu onena izatea. Neurri handi batean, gorakada hori esportazioen portaera onaren (%10,1 areagotu ziren) eta turismoaren ondorioa da. Aitzitik, kontsumo pribatuak eta inbertsioak ahultasuna erakusten dute oraindik eta ez dute berreskuratu bultzagile gisa izan duten papera. Italiak, berriz, atzean utzi du 2011tik bizi duen egoera hutsala eta 2017an %1,5 hazi zen.

Espainia izan zen berriro herrialde dinamikoena eremuko bost ekonomia nagusien artean. Hain zuzen ere, espainiar ekonomia %3,1 hazi zen iazko azken laurdenean eta egonkortasun handiko joera erakutsi zuen. Dagoeneko hiru urtez jarraian hazi da %3,0 baino gehiago. Kontsumo pribatua hazkundearen motorra da oraindik eta inbertsioa, batez ere ekipamendurako ondasunetan eta ereindako aktibotan eginikoa, nabarmendu zen, hartu zuen bizitasunagatik. Kanpo arloak, ordea, protagonismoa galdu zuen hiruhilekoz hiruhileko eta azken laurdenean hamarren bat kendu zion hazkundeari. Halere, urteko balantzean hiru hamarren ekarri zizkion BPGari. Enpleguak ere norabide egonkorra erakutsi zuen 2017an zehar eta %2,8 hazi zen. Enplegua sortzeko erritmoan aurreko urteko tasaren aldean (%3,0%) ezagutu zuen moteltze arina lehen arloaren eta, neurri txikiagoan, industriaren erantzukizuna da. Horiek horrela izanda ere, lanaldi osoko ia 490.000 lanpostu sortu ziren.

Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako enplegua
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eurostat eta INE.

EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Hazkunde sendoa eta iraunkorra aurreikusten da

Europar Batasuneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Europar Batzordeak neguko txostenean argitaratutako aurreikuspenen arabera, Europar Batasuneko ekonomia, eta baita Eurogunekoa ere, %2,3 eta %2,0 haziko da, hurrenez hurren, 2018an eta 2019an.

Datu horiek goranzko zuzenketa ekarri diete 2017ko udazkeneko txostenean argitaratu zirenei. Europako zikloaren egoera hobea, lan merkatuaren hobekuntza, ekonomia eragileen konfiantza handiagoa, merkataritzaren susperraldia eta munduko ekonomiarako hazkunde aurreikuspenak espero zirenak baino altuagoak izatea dira zuzenketa horretarako arrazoiak.


BPG. Europar Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2017	2018	2019	2018	2019
Europar Batasuna	2,4	2,3	2,0	+0,2	+0,1
Erresuma Batua	1,8	1,4	1,1	+0,1	=
Eurogunea	2,4	2,3	2,0	+0,2	+0,1
Alemania	2,2	2,3	2,1	+0,2	+0,1
Belgika	1,7	1,8	1,7	=	=
Espania	3,1	2,6	2,1	+0,1	=
Frantzia	1,8	2,0	1,8	+0,3	+0,2
Italia	1,5	1,5	1,2	+0,2	+0,2
Herbehereak	3,2	2,9	2,5	+0,2	=
Portugal	2,7	2,2	1,9	+0,1	+0,1
Irlanda	7,3	4,4	3,1	+0,5	=
Grezia	1,6	2,5	2,5	=	=
Austria	3,1	2,9	2,3	+0,5	=

Iturria: Europar Batzordea.


Alemaniako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Beste aldetik, inflazioa maila neurritsuan egongo da eta beraren bilakaeran energiaren salneurrien eragina nabarmena izango da. Soldatek ez dute presio handirik egingo.

Aurreikuspen horiekin batera hainbat arrisku zehazten dira, guztira orekatuta daudenak. Alde batetik, epe laburrean ekonomiaren hazkundera handiagoa izan daiteke, konfiantza handia dagoelako. Aitzitik, beste aldetik, gehiegizko baikortasuna egon daiteke aurreikuspen horietan, Brexitaren negoziazioaren emaitzak, tentsio geopolitikoek eta hainbat herrialderen joera protekzionistak kalte handiagoa egin dezaketelako.

Langabezia tasa. Europar Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2017	2018	2019	2018	2019
Europar Batasuna	1,7	1,9	1,8	+0,2	=
Erresuma Batua	2,7	2,7	2,0	+0,1	-0,1
Eurogunea	1,5	1,5	1,6	+0,1	=
Alemania	1,7	1,6	1,6	+0,1	=
Belgika	2,2	1,5	1,6	+0,1	=
Espainia	2,0	1,6	1,5	+0,2	=
Frantzia	1,2	1,5	1,5	+0,3	=
Italia	1,3	1,3	1,5	+0,1	=
Herbehereak	1,3	1,6	2,3	+0,1	+0,1
Portugal	1,6	1,6	1,5	+0,2	=
Irlanda	0,3	0,9	1,1	+0,1	-0,1
Grezia	1,1	0,8	1,3	=	=
Austria	2,2	2,1	1,9	+0,5	+0,2

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2016		2017		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,1	2,9	3,0	2,8	2,9	3,0	3,0
Familien kontsumoa	3,1	3,0	3,1	3,0	3,0	3,0	2,8
Administrazioaren kontsumoa	2,3	2,4	3,1	2,6	1,2	2,7	2,9
Kapital eraketa gordina	3,1	3,5	2,9	3,0	3,2	3,9	3,8
Barne eskaria	3,0	3,0	3,0	2,9	2,7	3,1	3,1
Esportazioak	1,7	3,0	-0,4	1,5	1,9	3,7	4,8
Inportazioak	1,5	3,1	-0,2	1,9	1,8	3,9	4,8
Lehen arloa	2,0	-3,0	-1,5	4,2	-1,9	-1,9	-11,9
Industria	2,9	2,7	2,7	2,0	2,3	2,7	3,7
Eraikuntza	1,8	2,5	2,4	2,1	1,9	3,0	3,1
Zerbitzuak	2,8	3,1	2,7	3,0	3,2	3,1	2,9
Balio erantsi gordina	2,7	2,9	2,6	2,7	2,9	3,0	3,0
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	3,0	6,4	3,3	2,4	3,0	3,2

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2017ko abendua

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017		2018				2018
	IV	2017	I	II	III	IV	
BPG	3,0	2,9	2,9	2,5	2,3	2,2	2,5
Barneko azken kontsumoa	2,9	2,8	2,6	2,4	2,1	2,1	2,3
Familien kontsumoa	3,1	3,0	2,8	2,5	2,2	2,2	2,4
Administrazioaren kontsumoa	1,9	2,1	1,9	1,7	1,5	1,7	1,7
Kapital eraketa gordina	3,3	3,3	3,2	3,2	3,4	3,4	3,3
Barne eskariaren ekarpena	3,1	3,0	2,9	2,7	2,5	2,4	2,6
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,1	0,0	-0,2	-0,2	-0,2	-0,1
Lehen arloa	-4,0	0,9	2,4	-1,5	-6,4	-8,0	-3,4
Industria	2,9	2,5	2,9	2,7	2,8	2,8	2,8
Eraikuntza	2,5	2,4	2,0	1,8	1,8	1,5	1,8
Zerbitzuak	3,1	3,1	2,9	2,7	2,4	2,3	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	2,9	2,6	2,3	2,2	2,5
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,9	2,9	2,5	2,2	2,2	1,9	2,2
Enplegua	1,9	2,0	1,9	1,7	1,6	1,4	1,7

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
Confebask	3,0	2,9	Hispalink (BEGren aldakuntza)	3,0	2,2
Laboral kutxa	3,0	2,7	BBVA	2,7	2,9
Funcas	3,0	2,7	CEPREDE	2,7	2,3

Iturria: CEPREDE (2018ko urtarrila), BBVA (2017ko azaroa), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2017ko abendua), Funcas (2017ko azaroa) eta Hispalink (2017ko abendua).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2016		2017		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,3	3,1	3,0	3,0	3,1	3,1	3,1
Kontsumo pribatua	2,9	2,4	2,7	2,2	2,4	2,4	2,5
Kontsumo publikoa	0,8	1,6	0,0	1,0	1,5	1,4	2,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	5,0	2,7	4,9	3,9	5,6	5,6
- Aktibo finko materialak	3,4	5,2	2,8	5,2	4,1	5,7	6,0
- Eraikuntzan	2,4	4,6	3,1	4,5	4,3	5,1	4,8
- Ekipamendu ondasunetan	4,9	6,1	2,5	6,1	3,9	6,6	7,7
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,7	3,7	2,1	3,5	2,9	5,0	3,3
Nazio eskaria (ekarpena)	2,5	2,8	2,0	2,5	2,5	3,0	3,2
Esportazioak	4,8	5,0	4,5	5,6	4,5	5,6	4,4
Inportazioak	2,7	4,7	1,6	4,5	3,1	5,9	5,2

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	3,1	2,8	Intermoney	3,1	2,6
Axesor	3,1	2,5	Repsol	3,1	2,4
BBVA	3,1	2,5	Santander	3,2	2,7
Bankia	3,2	3,0	Solchaga Recio & asociados	3,1	2,6
CaixaBank	3,1	2,4	BATEZ BESTE	3,1	2,6
Cemex	3,1	2,7	Gobernua (2017-10)	3,1	2,3
CEEM-URJC	3,1	2,5	Espainiako Bankua (2017-12)	3,1	2,5
CEPREDE-UAM	3,1	2,5	Europar Batzordea (2018-02)	3,1	2,6
CEOE	3,1	2,5	NDF (2018-01)	3,1	2,4
FUNCAS	3,1	2,6	ELGE (2017-11)	3,1	2,3
ICAE-UCM	3,1	2,5	The Economist (2018-02)	3,1	2,7
IEE	3,2	2,7	Consensus Forecast (2018-02)	3,1	2,6

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2016		2017		
			IV	I	II	III	IV
AEB	1,5	2,3	1,8	2,0	2,2	2,3	2,5
Txina	6,7	6,9	6,8	6,9	6,9	6,8	6,8
Japonia	0,9	1,6	1,5	1,3	1,6	1,9	1,6
Kanada	1,4	—	2,0	2,3	3,6	3,0	—
Europar Batasuna	2,0	2,5	2,0	2,2	2,5	2,8	2,6
Eurogunea	1,7	2,5	1,9	2,1	2,4	2,8	2,7
Alemania	1,9	2,2	1,9	2,1	2,3	2,7	2,9
Frantzia	1,2	2,0	1,1	1,2	1,9	2,3	2,4
Erresuma Batua	1,9	1,8	2,0	2,0	1,8	1,8	1,4
Italia	0,9	1,5	1,0	1,3	1,5	1,7	1,6
Herbehereak	2,2	3,1	2,7	2,6	3,8	3,2	3,4

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2018ko otsaila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,8	2,4	2,3	2,2	3,9	3,7
Japonia	1,4	1,1	0,9	1,1	2,7	2,6
Kanada	2,2	1,8	2,1	2,0	5,8	5,8
Europar Batasuna	2,2	1,9	1,8	1,8	—	—
Eurogunea	2,3	1,9	1,5	1,5	8,4	8,0
Alemania	2,4	1,9	1,7	1,8	5,4	5,2
Frantzia	2,0	1,8	1,5	1,5	9,0	8,7
Erresuma Batua	1,5	1,5	2,6	2,2	4,4	4,5
Italia	1,4	1,2	1,1	1,4	10,7	10,2
Herbehereak	2,6	2,1	1,6	1,9	—	—

Iturria: Consensus Forecast.